



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusia

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa
Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 2016RAKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN FORU ARAU AURREPROIEKTUARI DAGOKION GENERO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA EGIAZTATZEKO ARAUZKO TXOSTENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren eskariz egin da txosten hau, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan eta 2015eko martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 27. artikuluan xedatutakoa betetzeko asmoz.

Zehazki, 2/2015 Foru Arauko 27 b) artikuluan eta 2011ko ekainaren 21eko Diputatu Kontseiluaren erabakiz onartutako *Gipuzkoako Foru Aldundiko organoen izaera orokorreko xedapenen genero eragina aurre ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideak* izeneko dokumentuan xedatutakoa zuzen aplikatu den ala ez Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak egiaztatzea da txostenaren helburua, eta baita zentzu horretan hobetzeko proposamenak egitea ere.

2015eko urriaren 28an genero eraginaren aurre ebaluazioa egiaztatzeke txostena eskatu zion Ogasun eta Finantza Departamentuak Emakume eta Gizonezkoen Berdintasunerako Organoari goian aipatutako aurreproiektuaren inguruan. Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2016rako aurrekontu orokorrak onartzea da foru arau aurreproiektu honen helburua.

2/2015 Foru Arauaren 27.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, genero eraginari buruz ebaluatu beharreko izaera orokorreko xedapena da, beraz. Eta xede horrekin, araua sustatu edo eragin duen organoak dagokion genero eraginari buruzko txostena egin du, aipatu arauaren 27.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, hain zuzen ere.

GENERO EGOKITASUNA

Aurkeztutako genero eraginari buruzko ebaluazio txostenak **modu zuzenean identifikatzen du** esku artean dugun foru arau aurreproiektuaren **genero pertinentzia**, izan ere azken hartzaileak Gipuzkoako biztanle guztiak dira, beraz pertsona fisikoak. Horretaz gain, eragin zuzen zuzena du emakumeek eta gizonen baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko duten gaitasunean.



GENERO ERAGINAREN EBALUAZIOA

Proiektuaren genero pertinentzia zehaztu ondoren, Gipuzkoako gizon eta emakumeen desberdintasun egoerari buruzko aipamen bat egiten da, mendeetako bazterketa egoera gainditzeko eta egoera parekidea lortzeko urrats asko eman behar direla aipatuz. Bereziki ekonomia arloan **emakume eta gizonen artean dirauen arraila nabarmentzen da** bertan. Aipatzekoa da, desberdintasun hori ekonomian ez ezik bizitzako arlo gehienetan ematen dela.

Txosten honekin batera, eranskin gisa beste txosten bat ere aurkezten da, hain zuzen 2016ko aurrekontuen aurreproiektuko programa batzuk genero ikuspegitik aztertzen dituen azterketa. Gaitasunen ikuspegian oinarritzen da azterketa hau, politika publikoen arrakasta neurtzeko, politika horiek gizon eta emakumeen premien betetze mailan duten eragina aztertu behar dela azpimarratuz.

Horretarako, **departamentu ezberdinetako programa batzuk aztertzen dira, emakume eta gizonen berdintasunari dagokionez** garrantzi handia eta ertaina duten egitasmotzat hartzen direnak. Aztertutako genero eraginaren txostenaren arabera, programa horiek ondo ordezkaten dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako programak.

Ondorio gisa berriz, zera dio, 2016ko aurrekontuen xedeetako bat generoak sor ditzakeen desorekak ahalik eta gehien murriztea dela, eta zein neurritan lortuko den jakiterik ez badago ere, hori horrela izateko baldintza eta neurriak ipintzen direla foru arau horren bidez onartu nahi diren aurrekontuetan.

ONDORIOA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lehenik eta behin, aipatu Ogasun eta Finantza Departamentuak urteak daramatzala aurrekontuak generoaren ikuspegitik aztertzeko ahaleginetan. Helburu horrekin egiten den azterketarako departamentu guztiak inplikitzen dira, lan prozesu konplexu bezain interesgarria bultzatuz. Urtez urte hobekuntzak egin dira, bai jasotzen den informazioaren inguruan eta baita informazio horren inguruko genero azterketaren inguruan ere.

Hau horrela izan arren, egiten den azterketa ez da nahikoa 2016ko aurrekontuek genero eragin positiboa edo negatiboa izango ote duten ondorioztatzeko.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusia

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa
Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Hori dela eta, eragin hori aurreikusteko bidean **urratsak eman beharko lirateke**.

Batetik, genero eragin handia, ertaina eta baxua duten programak zehazteko irizpideak urtez urte berrikusi beharko lirateke.

Bestetik, sailkapen horren arabera aztertutako programen azterketan ere aurrerapausoak eman beharko lirateke, datuak sexu arabera banatuta eskaintzetik haratago:

- datuen genero analisia eginez,
- berdintasunerako berariazko helburuak definituz,
- eta atzemandako desberdintasunak gainditzeko neurriak zehaztuz.

Izan ere azterketa honen helburua atzematen diren desberdintasun horiek gutxitzea da, eta horretarako lan sistematiko eta jarraitua egin beharko da, lanaren konplexutasuna onartzetik abiatuta.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, eta orain artean Ogasun eta Finantza Departamentuak egindako ahalegina onartuz, *Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2016rako aurrekontu orokorrak onartzen dituen foru arau aurreproiektua* sustatzen duen departamentuak aurkeztutako genero eraginaren aurretiazko **txostena baliozkotzat jotzen da**.

Azkenik, aipatzekoa da foru arauan **hizkuntzaren erabilera ez sexista** egiten dela.

Donostian, 2015eko urriaren 29an




Irantzu Jauregi Artola
Berdintasun Teknikaria.
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa